


**2023**

41.

**NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA**

AZAROAREN 25ETIK ABENDUAREN 3RA

**TOLOSA**

Kartela: Nora Ansorena Irizar



# AURKEZPENA
## PRESENTACIÓN

### SARRERAK | ENTRADAS

Helduen sarrera | *Entrada adulto*.....................7 €

Haurren sarrera | *Entrada infantil*.....................4 €

Sarrera Murriztua | *Entrada Reducida*
- Familia ugaria | *Familia numerosa*
- Pentsiodunak | *Pensionistas*
- Aniztasun funtzionala | *Diversidad funcional*
- Langabeak | *Desempleados/as*
- TOPIC-eko lagunak | *Amigos del TOPIC*

Helduen sarrera | *Entrada adulto*.....................5 €

Haurren sarrera | *Entrada infantil*.....................3 €

Jaialdiko ikuskizun guztietarako sarrerak **www.topic.eus** atarian daude salgai baita TOPIC-eko leihatilan ere.

Ordutegia: asteartetik ostiralera, 10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 19.00etara; asteburua, 10.00etatik 14.00.etara eta 15.30etik 19.30era. Astelehenetan itxita.

*Las entradas para todos los espectáculos del festival están a la venta en **www.topic.eus** y en el TOPIC.*

*Horario: de martes a viernes, de 10.00 a 13.00 y de 16.00 a 19.00 horas; fines de semana, de 10.00 a 14.00 y de 15.30 a 19.30 horas. Lunes cerrado.*

Euskal Herria Plaza, 1 | 20400 Tolosa
Tel.: 943 650 414
email: cit@cittolosa.com
www.cittolosa.com
www.topic.eus

**TITIRIJAI bueltan izango dugu Tolosan.**

**Berriro ere, laster izango dugu Euskadiko Arte Eszenikoen kultur ekitaldi garrantzitsuenetako bat. Tolosan egiten den TITIRIJAI Txotxongilo Jaialdiaz ari gara, profesionalen eta adin guztietako ikuslegoaren arteko topaketaz. Jaialdiak 1982an du sorburua, Tolosako Ekimen Etxea, Miguel Arrecheren eskutik, eskualdean txotxongiloaren kultura eta artea sustatuko zituen ekimen artistiko bat aurrera eramateko aukerari buruz egindako hausnarketaren emaitzaz. Ordutik, jaialdiak gora egin du, eta Euskadiko kultur ekitaldirik urtetsuenetako bat da egun.**

**Aurtengo egitarauak Estatuko eta nazioarteko txotxongilo ikuskizunen eskaintza zabala biltzen du. Hala, gure artean izango ditugu bai Hegoafrika, Uruguai, Italia, Eslovenia, Portugal edo Frantziako konpainiak, bai Galizia, Madril, Andaluzia eta Kataluniakoak. Eta harro gaude gure artean izango ditugun Euskadiko konpainia anfitrioiekin: Mar Mar Teatro, Bonbon Beltz, Zurrunka eta Anita Maravillas. Titirijai ez da barrualdean egiten diren emanaldietara mugatzen; jaialdiak kaleko emanaldiak ere hartzen ditu, *Kuntur* (Companyia de Titelles de Lleida), *Maletas Mágicas* ikuskizuna, eta *Gargot Picado* instalazioa tartean.**

**TITIRIJAI Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren helburua txotxongiloen arloan sormena eta berrikuntza sustatzea da, baita gune bat eskaintzea ere artistei beren lana bisitatzen gaituzten publikoarekin partekatzeko. Beraz, profesionalentzat zein zaleentzat diseinatutako hainbat jarduera eskaintzen dira, eta horietan aukera paregabea eskaintzen zaie bertaratuei antzerki bisualaren, txotxongiloen eta objektuen antzerkiaren baliabideak ezagutzeko. Jarduera horietatik Toulouseko (Frantzia) Odradek eskolak emango duten tailerra nabarmenduko genuke; dramaturgia bat sortzen erakutsiko digute txotxongiloen eta objektuen antzerkiaren barruan. Eta jardueran horien artean izango ditugu Joëlle Noguès-en edo Shaday Larios-en hitzaldiak ere, txotxongiloen munduan murgiltzeko eta adierazpide artistiko hau sakontasun handiagoaz ulertzeko modu bikaina.**

**Zatozte jaialdiaz gozatzera! Zuen zain gaude!**

Vuelve TITIRIJAI a Tolosa.

Nuevamente se acerca uno de los eventos culturales más importantes dentro de las Artes Escénicas de Euskadi. Hablamos del Festival de Títeres TITIRIJAI que se celebra en la localidad de Tolosa y es un encuentro entre profesionales y el público de todas las edades. La historia del festival se remonta a 1982, cuando el Centro de Iniciativas de Tolosa, de la mano de Miguel Arreche, reflexionó sobre la posibilidad de llevar a cabo una iniciativa artística que promoviera la cultura y el arte del títere en la región. Desde entonces, el festival ha crecido hasta convertirse en uno de los eventos culturales más longevos de Euskadi.

El programa de este año promete ofrecer una variada selección de espectáculos de títeres de ámbito estatal e internacional, acompañándonos compañías de Sudáfrica, Uruguay, Italia, Eslovenia, Portugal o Francia; como de Galicia, Madrid, Andalucia o Cataluña. Pero a nosotros nos enorgullece tener como anfitrionas a cuatro compañías de Euskadi, Mar Mar Teatro, Bonbon Beltz, Zurrunka y Anita Maravillas. Titirijai no se limita sólo a actuaciones en interiores, ya que el festival también incluye actuaciones de calle, como *Kuntur* de la Companyia de Titelles de Lleida, el espectáculo de *Maletas Mágicas* o la instalación *Gargot Picado*.

El Festival Internacional de Títeres TITIRIJAI tiene como objetivo fomentar la creatividad y la innovación en el campo de los títeres, así como proporcionar un espacio para que los artistas compartan su trabajo con el público que nos visite. De esta forma se ofrecen diferentes actividades que brindan una oportunidad única para que los asistentes descubran las posibilidades del teatro visual, de títeres y de objetos; diseñadas tanto para profesionales como para aficionados. De estas actividades destacaríamos el taller impartido por la Escuela Odradek de Toulouse (Francia), que nos enseñarán a crear una dramaturgia dentro del teatro de títeres y objetos. Al igual que las ponencias de Joëlle Noguès o Shaday Larios. Estas actividades son una excelente manera de sumergirse en el mundo de los títeres y obtener una comprensión más profunda de esta forma artística.

¡No podéis faltar, os esperamos!

TOPICeko zuzendaritza | Dirección del TOPIC
Juanjo Herrero Mansilla
Estitxu Zaldua Domingo

# IKUSKIZUNAK
ESPECTÁCULOS



**Cía FARRES BROTHERS** | La madriguera
**Cía GUIXOT DE 8** | Gargot picado
**Cía JANNI YOUNGE PRODUCTIONS and PHAKAMA DANCE THEATRE** | Orígenes
**Cía JORDI FONT** | ELLOS Y YO o la sensación de que los árboles te miran
**Cía TITIRIGUIRI** | Clic, Clac, Mú
**BONBON BELTZ konpainia** | Gure Xaharrak
**ZURRUNKA konpainia** | Aioko
**Cía NAUTA** | A barca do inferno
**Cía MARIBOR** | Pinocchio
**Cía LA MAQUINÉ** | Estación paraíso
**Cía SACO DE HUESOS** | Edgar
**ANITA MARAVILLAS konpainia** | Andereño
**Cía LA DONA CALBA** | Caterina
**Cía FROBVIA** | Impossible?
**Cía CARLOS LÓPEZ** | Maletas mágicas
**Cía TITELLES DE LLEIDA** | Kuntur
**Cía ABOON TEATRO** | Baby Esferic
**Cía LA CANTINELA** | Solita, mi desierto imaginario
**Cía TITELLES DE LLEIDA** | Se vende hermano pequeño
**Cía PARTÍCULAS ELEMENTARES** | Quiero la luna





# LA MADRIGUERA

## FARRES BROTHERS

KATALUNIA

11:00 (25) (26) | 16:00 (25) (26) TOPIC Ambigu aretoa | TOPIC Sala Ambigú

4 urtetik aurrera | A partir de 4 años 25' Gaztelania | Castellano T Itzalak | Sombras

**Tamborínen istorioa –Ernest Thompson Seton aitzindari naturalistak XX. mendearen hasieran idatzia– untxi txiki bati buruzkoa da. Bere gordelekuan bakarrik geratzen da, bere ama janari bila joan den bitartean.**

**Amaren zain dagoela, kanpoaldeko animaliak hara eta hona dabiltza, berarekin jolas egin nahian. Untxia, ordea, zalantzan dago, zulotik irten ala ez. Baina inoiz entzun ez duen hots erakargarri bat sumatzen duenean, ezin dio tentazioari eutsi. Hots hori suge batena da, eta haurra erasotzen du, baina ama iritsi eta sugea uxatuko du.**

**Munduan arriskuak daude, bai, baina Tamboríni ez zaio ezer gertatuko; haiek saihesteko moduak ere egon badaude. Gure bertsioan, bere amaz gain, bere lagunek ere lagunduko diote sugea ehizatzen.**

La historia de Tamborín, escrita por el pionero naturalista Ernest Thompson Seton a principios del siglo XX, trata de un pequeño conejo que se queda solo en su madriguera porque su madre ha ido a buscar comida.

Mientras espera, los animales del exterior van y vienen, queriendo jugar con él, pero nunca se decide a salir, hasta que oye un ruido que no conoce y que le atrae hasta tal punto que no puede resistir la tentación. El ruido es el de una serpiente, que ataca al pequeño, pero llega su madre y ahuyenta a la serpiente.

En el mundo hay peligros, pero a Tamborín no le pasará nada, porque no sólo hay peligros. En nuestra versión, además de su madre, sus amigos también le ayudarán a cazar la serpiente.



# GARGOT PICADO

## GUIXOT DE 8

KATALUNIA

12:00 (25) (26) | 17:00 (25) (26) Alondegia plaza (25) | Zerkausi (26) Familiarra | Familiar
Hitzik gabe | Sin palabras T Jokoen instalazioa | Instalación de juegos

**Jokoa kaleko ikuskizun bihurtzen duen aurreneko konpainia!**

**Lehenak dira material berreskuratuak erabilita fabrikatzen dituzten joko originalekin kaleko ikuskizun bat egiten. Konpainia honek gure lurraldean hain errotuta dauden herri jokoen eta kukaña jokoen lekukotza hartu du. Gainera, jokoak kaleetara eta plazetara eramaten dituen Europako lehen konpainietako bat da, material berreskuratuak erabilita fabrikatzen dituzten joko originalekin; lehenik txatartegitik eta, ondoren, La Plana mankomunitateko garbiguneetatik datozen materialekin eraikiak.**

**12 joko-bilduma baino gehiagok piztu diete jolasgura eta ilusioa milaka haur, guraso, aitona-amona eta adin eta baldintza guztietako jenderi.**

¡La primera compañía que hace del juego un espectáculo callejero!

Es la primera en hacerlo con juegos originales, de fabricación propia y construidos con materiales recuperados. Lo hace recogiendo el testimonio de los juegos populares y de cucaña tan arraigados en nuestro país y, también, una de las primeras compañías de Europa que lleva juegos por calles y plazas, juegos originales, de fabricación propia y construidos con materiales recuperados, primero, procedentes del chatarrero y, después, de los puntos limpios de la Mancomunidad la Plana.

Más de 12 colecciones de juegos diferentes han hecho jugar e ilusionar a miles de niñas, niños, padres, madres, abuelas, abuelos y gente de todas las edades y condición.



# ORÍGENES

## JANNI YOUNGE PRODUCTIONS and PHAKAMA DANCE THEATRE

HEGOAFRIKA

18:00 | TOPIC antzokia | Teatro TOPIC | 7 urtetik aurrera | A partir de 7 años | 75´

Gaztelaniazko testu gutxi | Poco texto en castellano | T Hagaxka, itzalak eta objektuak | Varilla, sombras y objetos

**_Orígenes_ ikuskizunak Ezileh-ren bidaia jasotzen du, narrazio bisual bat, txotxongilo liluragarriak eta antzerki afrikar klasiko eta original bat.**

**_Orígenes_ek helduarorako bidea aurkitzen duen neskato baten istorioa da, Ezilehrena. Bere guraso bakarra, Monwabisi, maitekorra eta adeitsua da. Baina egoera zailetan nekez jasaten du erantzukizunaren zama. Gizakiok elkarrengan dugun eragina erakusten du, eta harremanen indarraz hitz egiten du. Ezilehk eta bere aitak gizakiaren zaurgarritasunari aurre egiten dioten bitartean, erabakiak hartzen ikusten ditugu, zer bihurtuko diren zehaztuko dutenak. Orígenesek metafora bisualak, mugimendu hunkigarriak eta musika erabiltzen ditu batzen eta banatzen gaituen energia iradokitzeko.**

_Orígenes_ recoge el viaje de Ezileh a través de una narración visual, fascinantes marionetas y un original teatro africano clásico.

_Orígenes_ es la historia de una niña, Ezileh, que encuentra su camino hacia la edad adulta. El único progenitor de Ezileh, Monwabisi, es cariñoso y atento. Pero en circunstancias difíciles soporta con dificultad el peso de la responsabilidad. Muestra el impacto que tenemos unos en otros como seres humanos y habla de la fuerza de las relaciones. Mientras Ezileh y su padre se enfrentan a la vulnerabilidad del ser humano, los vemos tomar decisiones que definen en quién se convertirán. Orígenes utiliza metáforas visuales, movimientos emotivos y música para evocar la energía que nos une y nos separa.



# ELLOS Y YO
## o la sensación de que los árboles te miran

### JORDI FONT
KATALUNIA

20:30 (25) - 20:30 (26) | TOPIC Miguel Arreche aretoa | TOPIC Sala Miguel Arreche | Helduak | Adultos

50´ | Gaztelania | Castellano | T Objektuak | Objetos

**Nor dira haiek? Baina, nor naiz ni? Nik ez dakit, baina dakidan gauza bakarra da ez naizela ezer haiek ez badaude.**

***Ellos y yo o esa sensación de que los árboles te miran*** **abentura bat da haurtzaroko oroitzapenetan eta nire umetako imajinarioan barrena.**

**Haurtzaroa aitona-amonen etxean eman nuen, etxe noble batean. Etxe hartan, osabekin egiten nuen jolas, nire anai-arrebak balira bezala.**

**Kataluniako folkloreko piztia fantastikoek markatutako imajinarioa; tartean Pesanta, Tinyosa edo uretako emakumeek.**

**Nire historia partikularraren bitartez, galeraz ari naiz. Haurraren tolesgabetasunaren, imajinarioaren, aitona-amonen etxearen, izeba Lidiaren… galeraz.**

¿Quiénes son ellos? pero, ¿y quién soy yo? Yo no lo sé, pero sólo sé que no soy nada si ellos no están.

*Ellos y yo o esa sensación de que los árboles te miran* es una aventura a través de los recuerdos de niñez y del imaginario de cuando yo era pequeño.

Mi infancia la pasé en casa mis abuelos, una casa solariega. En esa casa jugué con mis tíos como si fueran mis hermanos.

Un imaginario marcado por las bestias fantásticas del folclore catalán, como la Pesanta, la tinyosa o las mujeres de agua.

Hablo, a través de mi historia particular, de la pérdida. La pérdida de la inocencia del niño, del imaginario, de casa de los abuelos, de la tía Lidia…




# CLIC, CLAC, MÚ

## TITIRIGUIRI

MADRID

18:30 (26) | 10:30 eta/y 12:30 (27) TOPIC Antzokia | Teatro TOPIC 4 urtetik aurrera | A partir de 4 años

50´ Gaztelania | Castellano T Buiak | Bocones

**Mu eta Muy anai-arreben baserrian xumea eta lasaia da bizitza, behiak zeru urdinaren argipean bazkatzen dira, eta oiloek cumbia erritmoan errutén dituzte arrautzak. Egun batean, ordea, dei batek beren bizitzaren erritmoa aldatuko du, ez da musikarako eta zeru urdinari begiratzeko astirik izango. Modernizazioa beren bizimodua zeharo aldatzeko iritsi da baserrira…**

**Sistema berriak hitzik gabe utzi ditu eta, elkarrekin, beren nagusien hurbiltasuna berreskuratu nahi dute…**

**Doreen Cronin eskoziarraren *Clic, clac, mú, vacas escritoras* ipuinean oinarritutako istorioa.**

En la granja de los hermanos Mu y Muy la vida es sencilla y tranquila, las vacas pastan bajo la luz del cielo azul y las gallinas ponen huevos a ritmo de cumbia. Un día, una llamada cambiará el ritmo de sus vidas… no habrá tiempo para la música ni para mirar el cielo azul. La modernización ha llegado a la granja cambiando por completo su estilo de vida…

El nuevo sistema las ha dejado sin habla y juntas quieren recuperar la cercanía de sus amos…

Historia basada en el cuento, *Clic, clac, mú, vacas escritoras* de la escocesa Doreen Cronin.



# GURE XAHARRAK

## BONBON BELTZ

EUSKAL HERRIA

20:00 TOPIC Antzokia | Teatro TOPIC Helduak | Adultos 90´

Euskara | Euskera **T** Giza neurriko txotxongiloak | Marionetas de talla humana

**Ardillas azules zaharren egoitzan, etekin ekonomikoa helburutzat hartuta dago antolatuta lana eta talka egiten du zaintzari lotutako harremanen funtsezko gizatasunarekin.**

**Egun hauetan bereziki, elektrikoa da giroa. Lantaldean ondoeza eta sentsibilitatea areagotzen dira, eta lehertzeko zorian dago osasun arduraduna.**

**Antzoki honetan zaharrak txotxongiloak dira. Barrearen eta negarraren artean, arretari lotutako harremana eta mendekotasunari lotutako gaiak modu poetiko batean aztertzen dira.**

En la residencia de ancianos Ardillas azules la organización del trabajo, cuyo objetivo es el rendimiento económico, choca con la humanidad esencial de las relaciones de cuidado.

Especialmente estos días, el ambiente es eléctrico. En el seno del grupo de trabajo aumenta el malestar y la sensibilidad, la responsable sanitaria está a punto de estallar.

En este teatro los ancianos son marionetas. Entre la risa y el llanto, nos ofrecen una forma poética de abordar la relación de atención y los temas de la dependencia.



# A BARCA DO INFERNO

## NAUTA

GALIZIA

20:00 TOPIC Antzokia | Teatro TOPIC Helduak | Adultos 70´

Gaztelera | Castellano T Maskarak | Máscaras

**Haur baten arima errugabea beste aldean galduta dabil. Azken epaiketaren zain, baina, lehenik, uretako sakoneran murgildu beharko du, amildegietara iritsi, eta bertako biztanleekin topo egin, haien aieneak entzuteko eta beren espeziearen ekintzen ondorio konponezinak ikusteko.**

El alma inocente de un niño vaga perdida en el más allá. A la espera de su juicio final, pero antes ha de bucear a las profundidades acuáticas, llegar hasta los abismos, y encontrarse con sus habitantes para escuchar sus lamentos y descubrir las consecuencias irreparables de los actos de su especie.



# PINOCCHIO

## MARIBOR

ESLOVENIA

10:30 eta/y 12:30 (29) | 18:30 (03)

TOPIC Antzokia | Teatro TOPIC (29) | TOPIC Miguel Arreche aretoa | TOPIC Sala Miguel Arreche (03)

5 urtetik aurrera | A partir de 5 años 40´ Gaztelera | Castellano T Objektuak | Objetos

**Pinotxoren istorioa aparta da. Emozio iturri izan da belaunaldi askorentzat eta gaur egun bizirik dirau oraindik. Pinotxo metafora bat da, hutsegiteek ere gizakia molda dezaketela azaltzen duena.**

**Moldaketa honetan, arotzaren lantegira itzultzen gara. Bertan, berpiztu egiten dira bere erremintak eta, berez, mundu bat osatzen dute bere mahai gaineko zurezko piezak. Pinotxo bidaia batean murgiltzen da; gu, berriz, txotxongiloen ikuspegien esplorazio batean.**

La historia de Pinocho es una aventura increíble que ha sido fuente de emoción para muchas generaciones y todavía está viva hoy. Pinocho es una metáfora de cómo los errores también pueden moldear al hombre.

En esta adaptación, regresamos al taller del carpintero donde las herramientas del carpintero reviven y las piezas de madera en la mesa del carpintero se convierten en un mundo propio. Pinocho se embarca en un viaje y nosotros en una exploración de los enfoques de los títeres.



# ESTACIÓN PARAÍSO

## LA MAQUINÉ

GRANADA

20:00 (29) | 10:30 eta/y 12:30 (30) TOPIC Antzokia | Teatro TOPIC 8 urtetik aurrera | A partir de 8 años

55´ Gaztelera | Castellano T Mistoa | Mixta

**Tren geltoki batean emakume txotxongilolari zahar bat zain dago, baina ez daki zergatik dagoen han. Maletan daramatzan txotxongiloak izango dira nor den eta bere halabeharra zein den jakiteko pista bakarra. Emakume zahar baten maitasun istorioa da, bere oroimenaren mugei ausardiaz, umorez eta samurtasunez aurre egiten diena bere bizitzako maitearekin elkartzeko.**

**Bizitza treneko bidaia antzeko bat da, non denok jaisten garen geltoki berean, Paraiso geltokian.**

En una estación de tren una vieja titiritera espera, pero no sabe por qué está allí. Sus títeres en una maleta serán su única pista para averiguar quién es y cuál es su destino. Esta es la historia de amor de una anciana que desafía con valentía, humor y ternura los límites de su memoria para reunirse con el amor de su vida.

La vida es como un viaje en tren en donde todos nos bajamos en la misma estación, la estación Paraíso.



# EDGAR

## SACO DE HUESOS

FRANTZIA

20:00 TOPIC Antzokia | Teatro TOPIC Gaztelera | Castellano 70'

Gaztelera | Castellano T Haría eta Itzalak | Hilo y Sombras

**Edgar, helduentzako itzal eta txotxongiloen ikuskizuna da, Edgar Allan Poeren unibertsoan eta Virginiaren heriotzaren ondorengo bere bizitzaren azken urteetan inspiratua.**

**Itzalez betetako New Yorkeko kaleetan barrena ibiliko gara. Bere pertsonaiak, automaten antzera, beren pasioen eta errutinen esklabo diren tabernetan sartuko gara. Hilerriko lurren sakonetara joango gara, eta hilobiaren besarkada estu eta hezean esnatuko gara, lurperatzaile gazte bat bere doinua txistukatzen ari den bitartean.**

**Hori guztia ideia baten erosotasunetik: *txotxongiloak baino ez dira*, baina beren itzalak gureenekin identifikatzeak uzten duen hondar mikatz hori dute ahoan.**

Edgar, es un espectáculo teatro de sombras y marionetas para adultos inspirado en el universo de Edgar Allan Poe y en los últimos años de su vida tras la muerte de Virginia.

Recorreremos las calles de un Nueva York lleno de sombras, nos adentraremos en tabernas donde sus personajes son esclavos de sus pasiones y rutinas, como autómatas. Ahondaremos en la tierra del cementerio y despertaremos en el apretado y húmedo abrazo de la tumba mientras un jocoso enterrador silba su melodía.

Todo esto desde la comodidad de una idea: *solo son marionetas*; pero con el poso amargo en la boca de identificar sus sombras con las nuestras.



# ANDEREÑO
## ANITA MARAVILLAS
EUSKAL HERRIA

10:30 eta/y 12:30 (01) | 18:30 (02) TOPIC Antzokia | Teatro TOPIC 7 urtetik aurrera | A partir de 7 años
55´ Euskara | Euskera T Objektuak | Objetos

**Ausarta, trebea eta atsegina da maistra. Haurren gaitasunetan sinesten du, guztion gaitasunetan.**

**Maistrak eta bere gelako talde txikiak eskola eder bat eraiki dute elkarrekin, basoan abere guztientzako lekua duen eskola bat.**

**Gure maistrak gehien maite duen hitza askatasuna da eta, beraz, bere gelako haurrak askatasunez haztea nahi du. Zoritxarrez, helduek gerra bat hasten dute, eta horrek behartu egiten ditu gure protagonistak amestutako eskola atzean uztera, maitasunetik eta elkar zaintzetik eraikitako eskola, alegia. *La Maestra*ren istorioa aske eta zoriontsu izateko saialdi zoro eta eder bat da. Maistra ausart haien hitzek istorio honetan barrena bidaiatzen dute, eta aske izateko lehendabiziko baldintza saiatzea dela xuxurlatzen digute belarrira.**

La maestra es valiente, hábil y simpática. Cree en las capacidades de los niños y las niñas, en las de todos y todas.

La maestra y su pequeña clase han construido juntos una hermosa escuela, una escuela en el bosque con cabida para todos los animales.

La palabra más querida por nuestra maestra es la libertad, por lo que quiere que su clase crezca libremente. Desgraciadamente, los mayores comienzan una guerra que obligará a nuestros protagonistas a dejar atrás su soñada escuela, una escuela construida desde el amor y el cuidado mutuo. La historia de *La Maestra* es un intento loco y hermoso de ser libre y feliz. A través de esta historia viajan las palabras de aquellas valientes maestras y nos susurran al oído que la primera condición para ser libre es intentarlo.



# CATERINA
## LA DONA CALBA
KATALUNIA

Argazkia | Fotografía: © PIRUETAFOTO

20:00 TOPIC Antzokia | Teatro TOPIC Helduak | Adultos 45´
Gaztelera | Castellano T Txotxongilo habitatua | Marioneta habitada

**Caterina herriko plazara iristen da maleta astun bat arrastaka eramanez. Hogei urte baino gehiago dira ganbaran gordeta zuela, behinola berarentzat dena izan ziren objektuz betea. Gaur, azkenean, pausoa eman eta bere iraganaz, bere oroitzapenez eta bere historiaz libratzea erabaki du. Baina plaza berean jotzen ari den kaleko gitarrista batekin partekatu beharko du lekua. Hala, Caterinaren asmoetatik urrun, behinola lurperatutako guztia piztuko du bere baitan haren presentziak. Musika traba bat da hasieran, baina protagonista desblokeatzeko eta askatzeko motorra izango da azkenean, eta urte askoren ondoren kantatzera eta berriro dantzatzera ausartuko da horrela.**

Caterina llega a la plaza del pueblo arrastrando una maleta muy pesada. Hace más de veinte años que la guarda en el desván, llena de objetos que un día lo fueron todo para ella. Hoy, por fin ha decido dar el paso y deshacerse de su pasado, sus recuerdos, su historia. Pero tendrá que compartir espacio con una guitarrista callejera que está tocando en la misma plaza y que, lejos de las intenciones de Caterina, su presencia despertará en ella todo aquello que un día fue enterrado. La música empieza siendo un estorbo, pero acaba por ser el motor para desbloquear y liberar a la protagonista que, después de muchos años, se atreverá a cantar y a bailar de nuevo.



# IMPOSSIBLE?

## FROBVIA

KATALUNIA

11:00 eta/y 16:00 TOPIC Ambigu aretoa | TOPIC Sala Ambigú 4 urtetik aurrera | A partir de 4 años

25´ Gaztelania | Castellano T Papera | papel

**Bi bizitza, bi istorio, itsasoa eta lurra; biek eusten diote Lur planetaren bizitzari. Ikuskizun honek bi pertsonaren bizipena azaltzen du, benetako bi gerlari, beren denboraren eta energiaren zati bat eusten gaituen espazioa eta ingurunea zaintzera bideratu dutenak. *Afroz Shah*, dortokak hondartzara itzultzea lortu zuena, eta *Julia Butterfly*, 60 metroko altueratik baso oso bat moztea saihestu zuena.**

Dos vidas, dos historias, el mar y la tierra; las dos sostienen la vida del Planeta Tierra. Este espectáculo explica la vivencia de dos personas, dos guerreras reales, que han destinado parte de su tiempo y energía a cuidar el espacio y el medio que nos sostiene. *Afroz Shah*, quien logró que las tortugas volvieran a la playa, y *Julia Butterfly*, que desde 60m de altura evitó que talaran todo un bosque.




# MALETAS MÁGICAS

## CARLOS LÓPEZ

ARGENTINA / EUSKAL HERRIA

12:45 (02) | 12:00 (03) Alondegia plaza (02) | Zerkausi (03) Familiarra | Familiar

45´ Hitzik gabe | Sin palabras T Haria | Hilo

**Bidaia hasten da. Maletak prest daude.**

**Bere maletaren barruan txotxongilo bakoitzak mundu magiko bat sortzen du, *maleta magikoz* egindako istorio bat. Istorio laburrak. Txotxongilo batzuk abesten ikusiko ditugu, beste batzuk instrumentuak jotzen, batzuk beren munduan jolasean, eta beste batzuk berealdiko sorpresa direnak.**

El viaje comienza. Las maletas están listas.

Dentro de su maleta cada marioneta crea un mundo mágico, una historia hecha de *maletas mágicas*. Historias cortas donde veremos a marionetas que cantan, otras instrumentistas, unas que simplemente juegan en su propio mundo y las que son toda una sorpresa.



# KUNTUR

## TITELLES DE LLEIDA

KATALUNIA

12:00* eta/y 17:00** * Emeterio Arresetik Alondegi plazarako ibilbidea | Recorrido de Emeterio Arrese a la plaza Alondegi
** Plaza Zaharretik Euskal Herrirako ibilbidea | Recorrido de Plaza Zaharra a Euskal Herria Familiarra | Familiar
35´ Hitzik gabe | Sin palabras T Kaleko txotxongilo erraldoiak | Marionetas gigantes de calle

**Ikuskizun ibiltaria. Bertan, Andeetako kondor izugarri handi bat bidea egiten ari da hirian barrena, eta entzun egiten da bere doinua. Bizitzari eta ingurumenarekiko errespetuari eskainitako kantua, ikusleari larrialdi klimatikoarekiko erantzukizun kolektiboaz galde egiten diona.**

**Hegaztiaren handitasun dotore eta fisikoak, bere egituraren eta materialen hauskortasunaren aurrean, naturaren mugagabetasuna ekosistemaren oreka delikatu batek sostengatzen duela erakusten digu.**

Un espectáculo itinerante en el que un imponente cóndor de los Andes se abre paso por la ciudad haciendo oír su canto. Un canto a la vida y al respeto por el medio ambiente que interpela al espectador sobre la responsabilidad colectiva hacia la emergencia climática.

Su majestuosidad física y voluminosa, frente a la fragilidad de su estructura y materiales, nos ejemplifica como la inmensidad de la naturaleza se sustenta por un delicado equilibrio del ecosistema.




12:00 (02) (03) | 17:00 (02) (03) Leidor aretoa | Teatro Leidor 6 hilabetetik 3 urtera | de 6 meses a 3 años
30´ Hitzik gabe | Sin palabras T Objektuak | Objetos

***Baby esferic* Lurrari egindako omenaldia da. Planetarekin eta bertako biztanleekin lotzen gaituen magiaz hitz egiten du, hainbat istorio eta paisaiaren bidez.**

